Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHU-KO EUSKARA PROBAK (2021eko ekaina)
AZTERKETARIENTZAKO JARDUNBIDEA

PROBA IDATZIA

Nork: onartuen behin betiko zerrendan ageri direnek. **Nortasun Agiria** ekarri behar da azterketara.

Noiz: 2021eko ekainaren 1ean, asteartez.

Non: Leioako campusean, Zientzia eta Teknologia Fakultatean (1.8 eta 1.9 ikasgeletan).

Zer ordutan: 10:00etan (9:45ean egon behar dute ikasgelako atarian)

OHAR GARRANTZITSUAK BALDINTZA SANITARIOEI BURUZ:

1. Azterketari bakoitzak bere **maskara ekarri behar du**, eta maskara hori **jantzita** egin behar du azterketa (azterketariren bat maskara erabiltzea salbuetsita egonez gero, mediku-agiria ekarri beharko du hori frogatzeko).
2. Hidrogelez garbitu beharko dituzte eskuak azterketariek (ikasgela bakoitzean prest egongo dira).
3. Azterketarien artean agintariek agindutako **distantzia sanitarioa errespetatuko da**.

Nola egin behar den azterketa: idatzizko probak hiru azpiatal ditu, hirurak gainditu beharrekoak:

A. Lehen ariketa: aukera anitzeko galderen proba izango da. Proba hau osatuko duten 50 galderei erantzun beharko die azterketariak, ematen zaizkion lau erantzunen artean egokiena hautatuz. Azterketariak 32 erantzun eman beharko ditu zuzen atal hau gainditzeko (erantzun zuzenak bakarrik hartuko dira kontuan).

B. Bigarren ariketa: irakurmena: bigarren ariketan, hiru testu eskainiko zaio azterketariari, testuen ulermenari buruzko 10 galderari erantzun diezaien, aukeran ematen diren erantzunen artean egokienak aukeratuz. Azterketariak 6 erantzun eman beharko ditu zuzen atal hau gainditzeko (erantzun zuzenak bakarrik hartuko dira kontuan).

C. Hirugarren ariketa: idazlana: aukeran emango diren gaietako bat garatu behar da, azterketari bakoitzak bere arlokoa (nahiz ez den ezinbestekoa hala izatea). Idazlanak **300 hitz** izango ditu gutxienez. Idazlana euskara batuan egin behar da eta emandako gaietako bati lotua, betiere. Idazlanaren kalifikazioa GAI / EZ GAI izango da.

- **Azterketa egiteko denbora**: guztira, **2 ordu eta 45 minutu**

OHARRA ariketa bakoitzari eskaintzeko denborari buruz: hona gure gomendioa:
1.ariketa → 45'; 2. ariketa → 35'; 3. ariketa → 85'

Proba idatziaren emaitza: 2021eko ekainaren 3an, ostegunez, argitaratuko da, 12:00etan, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren iragarki-taulan eta webgunean, helbide honetan:

https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/probak-urratsez-urrats

OHARRA AHOZKO PROBARI BURUZ: Idatzizko probaren emaitzen berri ematearekin batera, proba gainditu dutenei **uztailaren 4ko ahozko proba** nola eta zer ordutan egin behar duten adieraziko zaie.

UPV/EHU-KO EUSKARA ZERBITZUA

UPV/EHU VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E INTERNACIONALIZACIÓN
UPV/EHU EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA